

IRUDI LAUAK: LAUKIAK


Luzeera, masa eta edukiera neurriak aztertu eta gero, oraingo honetan gai berri bati hasiera emango diogu: Irudi lauak. Gure egunerokoan irudi lauez inguratuta gaude eta horregatik ezinbestekoa da hauek ezagutzea. Gai berri honi hasiera emateko, laukiak landuko ditugu. Dakizuen bezala, laukiak, lau alde osatutako poligonoak dira. Baina ezagutzen al dituzue lauki mota guztiak? Ondorengo irudian laukien sailkapena ikus dezakezue, angeluak eta aldeak kontuan hartuta.

Laukiak


Lauki motak

PARALELOGRAMOAK

Aurkako aldeak paraleloak dira.

ERRONBOIDEA  Aldeak berdinak dira binaka. Angeluak berdinak dira binaka.	ERRONBOA  Alde guztiak berdinak dira. Angeluak berdinak dira binaka.
LAUKIZUZENA  Aldeak berdinak dira binaka. Angelu guztiak berdinak dira.	KARRATUA  Alde guztiak berdinak dira. Angelu guztiak berdinak dira.


EZ-PARALELOGRAMOAK

TRAPEZIOA  Bi alde baino ez dira paraleloak.	TRAPEZOIDEA  Ez du alde paralelorik.
--	---


Hona hemen proposatzen zaizkizuen ariketen helburuak:

- *Lauki mota ezberdinak ezagutzea.*
- *Laukiak ezaugarri ezberdinen arabera sailkatzen jakitea.*
- *Perimetroa zer den ezagutzea eta laukien perimetroa kalkulatzeko ikastea.*
- *Laukiekin erlazioetatutako buruketak ebazten ikastea.*

1. Idatzi lauki mota bakoitzaren azpian bere izena.



2. Sailkatu lauki hauek, hau da, esan zer motatakoa del lauki bakoitza eta bere angeluak eta aldeak nolakoak diren.



Aldeak berdinak
 Angeluak bikoteka berdinak


[illegible]

- ek ez dituzte alde guztiak berdinak, baina bai angeluak.
- ek ez dituzte angelu guztiak berdinak, baina bai aldeak.
- Karratuek etaek lau angeluak berdinak dituzte.
- Karratuek etaek lau aldeak berdinak dituzte.


[illegible]

	4 aldeak berdinak	Binaka aldeak berdinak
4 angelu zuzen ditu		
Binaka angeluak berdinak		

7. Laukizuzen formako lursail baten hesia jartzeko, 740 metro alanbre-hesi behar izan da. Zer neurri du luzetara?



8. Lursail honen hesia jarri nahi da. Metroak 5 euro balio du. Zenbat balio du hesi osoak?



OROITU: **Perimetroa** bi dimentsioko irudi geometriko lau bat mugatzen duen lerroa da, bai eta lerro horren luzera ere. Horrela, poligono baten perimetroa bere alde guztien luzeren batuketa da.